

«Leihoak» eta «Landareak terrazan». Online sorkuntza kolektiboko bi proiektu



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa



Komunikazioa
eta informazioa



Gizarte eta osasun
zerbitzuak

«Leihoak» eta «Landareak terrazan». Online sorkuntza kolektiboko bi proiektu

Aurkeztera goazen bi proiektuek **sorkuntza artistikoa**, ikaskuntza eta hausnarketa uztartzen dituzte modu berritzailean, besteekin egindako prozesu baten barruan: **arlo sozialaren eta artistikoaren artean** kokatutako proiektuak dira.

Gure proiektuak abian jartzeko **ERRONKA eta AUKERA handia 2020ko** udaberrian agertu zitzaigun, bi egoera hauek bat egin zutenean: gizartearen pixkanakako zahartzea eta pandemiak eta konfinamenduak eragindako aparteko egoera, adinekoengan eragin handia izan zuena. Horrelako proposamenen bidez, **bizi kalitatea hobetzea, autonomia eta bizimodu independentea sustatzea eta adinekoek parte hartzea** lortu dugu. Giza harremanetan oinarritu gara, hots, AJANERen jardueren barruan proposatutako pintura klaseetan (aurrez aurrekoak zirenean) sortu zen komunitatean. Klase horietako ia ikasle guztiek hartu dute parte, eta, azkenean, kontakizun kolektibotzat har daitezkeen bi obra eraikitzen lagundu dute.

Zahartze egokiari buruzko gidetan, jarduera soil bat besterik ez da artea, erretiroa hartu ondorengo urte zail horietarako entretenimendu bat, **BAINA proiektu hauetan haratago joan gara, eta Arte Garaikidea tresna gisa aurkeztu dugu SORKUNTZA KOLEKTIBOKO BI ESPERIENTZIATAN**, helburu hauekin:

- **Burua eta irudimena AKTIBO** mantentzea, **arte eta pentsamendua** uztartuz.
- **Biziago, sortzaileago eta errealitatearekin eta gure artean konektatuago** sentitzea.
- Bi produktu **kultural** garaikide sortzea.

Mundua eta gure sentimenduak eta pentsamenduak taldean ESPLORATZEKO modu bat izan da. **NOLA?** Gudan eta inguruan gertatzen denari ADI EGONEZ eta arreta horretan JARRITA.

Horrela, konfinamenduaren testuinguruan, gure jakingura eta emozioa piztu zituzten bi gaik, eta ideia horiek plastikoki jorratzeko gogoia sentitu genuen.

Errealitateari beste begi batzuekin begiratzeko aukera eman digu horrek, eta gure munduari forma berria ematen dioten gai, egoera eta arazo berrietan SAKONDU dugu.

PASIOA eta GOGOA berreskuratzen saiatu gara, ustekabeko pentsamenduak agertu dira eta **plastikaren bidez konponbide pertsonalak** aurkitzeko gogoaz piztu zaigu planteatu ditugun erronken aurrean.

Emaitzak bi irudi dira, parte hartzaileen **ekarpen indibidualak fusionatuta** sortuak, eta, horregatik, esperientzia pertsonala eta kolektiboa da aldi berean. Gure bizitza izan dugu oinarri, gure interesak, kezak eta gatazkak, eta horiei buruz aritu gara.

EKOIZPEN ARTISTIKO orok INPAKTUA sortzen du ingurunean, eta gureek ere sortu dute. Oso modu zuzenean sentitu dugu hori, sare sozialen bidez azkar iritsi baita Algortako gure bizilagunengana eta hurbilekoengana. Eta gure alde izan dugu sare sozialen abantailak: berehalako erantzuna —oso positiboa gure kasuan—, bai ingurune hurbilenean —elkartean— bai urrunenean.

1. Erakunde sustatzaileak

AJANE, Algortako Nagusien Elkartea

2. Erakunde mota

Pribatua

3. Xede taldea

AJANEko bazkide diren adinekoak, pintura tailerreko ikasle direnak

4. Lurralde eremua

Tokikoa

5. Egoera

Amaituta Hasiera data: 2020ko martxoa Amaiera data: 2020ko uztaila

6. Etiketak

Arteak, bakardadea

7. Helburuak

Kontuan hartuta **Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak** eta **2030 Agenda**, hauxe izan da helburu nagusia: pertsonaren garapen integrala jartzeari ekintzaren erdian. Horrenbestez, honako hauek lortzen lagundu nahi izan dugu:

- **Gizarte isolamendua prebenitzea**, eta bizi kalitatea eta herritarren **inklusioa** sustatzea.
- Aukera berdintasuna eta pertsona guztien garapena sustatzea.

- **Bizikidetza eta gizarte kohesioa** hobetzea.

Proiektuaren helburu espezifikoak:

- **Adinekoek ERRESONANTZIA HARREMANAK** eskaintzea, **isolatuta gera ez daitezen.**
- **Dinamika berriak eskaini eta horietan parte hartzeko aukera ematea, pintura taldeko ikasleen arteko harremana aprobetxatuz.**
- **Sorkuntza artistiko mota berri bat lantzea pertsonen arteko harremanak eta elkar ezagutzea bultzatzeko, autoestimua indartzeko eta sormena, irudimena eta adierazpena garatzeko, **hizkuntza artistikoen** arteko harremanaren bidez.**
- Adinekoek gizarteari egin diezazkioketen ekarpenek eta gogoetek jakin mina piztea eta horiek errespetuz hartzea. **Adinekoek** lortutako emaitzek harrera ona badute, areagotu egiten da haien autoestimua eta baliotsu sentitzen dira.
- **Zahartze aktiboa sustatzea, eta pentsamendu estetikoa eta sormena** tresna gisa erabiltzea burua eta irudimena aktibo mantentzeko.
- **Metodologia aktiboen eta parte hartzearen bidez sortzeko gaitasuna sustatzea,** gaitasun hori narriatu ez dadin. Denek beren sentimenduak, emozioak eta, garrantzitsuena, ideiak adierazten jarraitzeko aukera ematea.
- **Parte hartzaileak beren sortzeko gaitasunaz jabetzea;** izan ere, pertsona orok du gaitasun hori, adin mugarik gabe, sortzetikoa da eta ez da agortzen. Proposatu ditugun esperientzia artistiko kolektiboek agerian utzi dute hori.
- **Gainerako parte hartzaileen obrak interpretatzeko ahalmena bultzatzea, eta ingurunearekin eta inguruko pertsonekin lotura eta harreman espontaneoak ezartzea.**
- Parte hartzaileek **elkarlanean** lan egiten ikastea, **helburu komun** baten arabera eta **plazera, zentzumenezko ezagutza eta hausnarketa artistikoa** uztartuta.
- Gizakiaren zentzumenezko ezagutzaren behar estetikoa asetzea.

8. Metodologia

ARTE KOMUNITARIOKO PROPOSAMENAK dira, eta PROIEKTU ARTISTIKO IREKIAREN metodologia izan dute. Horretarako, artista garaikideen prozesu artistikoetan inspiratu gara, baliabide ezin hobea baitira jakintzak integratzeko eta hausnarketa kritikorako espazioak sortzeko. **Esperientzian oinarritutako ikaskuntza metodologia aktiboak** dira.

Gure prozesuak SORKUNTZAKOAK dira eta, beraz, IKASKUNTZAKOAK, eta ikerkuntza bide berriak dira. Gure ustez, **BESTEekin EGINDAKO SORKUNTZA PROZESU bat IKASKUNTZA ere bada, eta sentsibiltateak trukatzeko bide berri bat.**

COVID-19aren pandemiaren ondoriozko konfinamenduaren testuinguruan sortu ziren gure proiektuak. AJANEk antolatutako pintura tailerreko hogeita hiru ikaslek, begiraleak koordinatuta, harremanetan jarraitu zuten duela zenbait urte sortu zuten WhatsApp taldearen bitartez; baina, egoera berri haren ondorioz, taldeko parte hartzaileen kopurua handitu egin zen, eta harreman mota aldatu.

- Gure bizitzako egoera berri hartan, jarduera berritzaileak egin genituen plataforma horren bidez, hala nola informazioa trukatu, gehienetan arteari buruz. Gainera, **zenbait proiektu artistiko kolektibo planteatu, garatu eta gauzatu ziren, eta ikaslerik gehienek hartu zuten parte.**

Diseinatzeko erabilitako metodologia

- Proiektuen arabeko metodologia bat erabili genuen, ART THINKING metodologia. Esperientziak eta jakintzak PARTEKATU eta ERREALITATEAREN EZAGUTZA DESBERDIN bat eraikitzen da metodologia horren bidez. Horrela, gizartea hobea izatea lortzen da.
- **Proiektu IREKIAK** dira, eta, beraz, proiektu bakoitzaren ibilbidea berdingabea da, eta urratsak libreki ematen dira parte hartzaile bakoitzak egindako ekarpenen arabera. Beraz, ez dira **etapa zurrunkak**; gure lehen urratsak gidatzeko eskema bat da.
- **Art Thinking metodologiak deskribatzen duen ikaskuntza sekuentzian oinarritu ginen. Parte hartzaileen interes batekin zerikusia duen arazo edo zeregin bat ebaztea** zen estrategia metodologikoaren oinarria.
- Lehenengo helburua sortzaile izateko dugun gaitasunaz jabetzen jarraitzea izan zen, aurrez aurreko eskoletan bezala; baina, 2020ko martxotik aurrera, konfinamendu garaian, haratago doazen helburuak agertuz joan ziren, gure komunikazio beharrak eraginda harreman biziagoak behar genituen eta.

9. Alderdi berritzaileak

Proiektuak erabat berritzaileak dira; jarduera berritzaile bat eskaintzen dute, kontuan hartuta **adinekoek** erresonantzia harremanen beharra dutela isolatuta ez geratzeko.

- Helburua da balio sozial handiko proiektuak garatzen laguntzea, garapen jasangarrirako helburu (GJH) batzuk erreferentzia esparrutzat hartuta.
- Proiektu honi lotutako garapen jasangarrirako helburuek zerikusia dute guztiontzako bizitza osoko ikaskuntzarako aukerak sustatzearekin.

Guztiontzako **KALITATEZKO HEZKUNTZA** inklusibo nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

- Esperientzia oinarri duten ikaskuntza metodologia aktiboekin lotuta dago proposamena.
- Parte hartzaileek ikusi dute beren ezagutzak gizartearentzat baliagarriak direla, eta gai dira beren ezagutzak komunikatzeko eta funtsak erakarrita beharra duten kolektiboak tresnaz hornitzeko.
- Irudimenaren eta sorkuntza indarraren bidez geure buruarekin konektatzen dugu.
- Zahartzaroan, sortzeko gaitasuna garatzea funtsezkoa da bizi kalitaterik eta ongizaterik ez galtzeko.
- Sortzeko trebetasunak ikasi eta entrenatu egiten dira.
- Denok dugu munduaren ikuspegi pertsonal bat: sortzaileak izan gaitzke, artistak.
- Arte Garaikideak eta Kultura Bisualak ahalmen eraldatzaile handia dute, eta ekarpen hori egiten diote hezkuntzari.

Proiektuen araberako metodologia bat erabili genuen, ART THINKING metodologia. Esperientziak eta jakintzak PARTEKATU eta ERREALITATEAREN EZAGUTZA DESBERDIN bat eraikitzen da metodologia horren bidez.

- Irudia eta arte plastiko bisualak modu didaktikoan erabili genituen, sormena garatzeko eta motibatuzko. Hori guztia irudien azterketa kritikoaren bidez egin genuen, ALFABETIZAZIO BISUALA helburu hartuta.
- Arte Garaikideak elementu hauek guztiak jartzen ditu jokoan, tresna didaktikoa den aldetik: zalantza, galdera (galdetzeko jarrera), kritika, nahastea, irudimena, plazera, jolasa, zoria, huts egitea, pentsamendu dibergentea, ingurune hurbilenari buruzko ikerketa eta hausnarketa prozesuak.
- Konponbide berriak eta sortzaileak txertatu genituen praktikan, inoiz planteatu ez den arazo bati erantzuteko.
- Batera sortzeko espazioetan, entzuten eta bestearen iritzia errespetatzen eta baloratzen ikasten da; baina, horrez gain, ikuspegi artistikotik, beste begirada batzuk ezagutu, beste harreman batzuk egin eta prozesua asko aberasten duten eraikuntza artistikoak sortzen dira.
- ERREFERENTEAK behatu eta aztertu ziren.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Bi proiektuen gaiak erabaki ondoren, «leihoak» eta «landareak», parte hartzaile guztiek beren trebetasun artistikoak eta sorkuntzakoak martxan jarri zituzten **gaiari**

buruz ikertzeko. Gainera, gaiak aberastu eta metafora bidez jantzi zituzten, materialak, objektuak, emozioak eta sentsazioak erabiliz.

Esperimentatzea zen kontua, gai bakoitzaren inguruan sortzen zihoazen ideiekin **jolastea**. Horrela, forma harrigarriak eta askotarikoak zituzten ERANTZUNAK eman zituzten parte hartzaileek, eskuen trebetasunetik haratago. Eta EDOZERTAN INSPIRATZEN, kopiatzen, birnahasten ikasi genuen.

Banakako proposamen bakoitza zentzua duen espazio batean jarrita, obra horiek guztiak obra **kolektibo** handi batean batu genituen, aukeratutako gaiari esanahia emateko: obra **kolektiboa** narrazio bat da, eta kontatu eta eraldatu egiten du abiapuntuko errealitatea, hots, leihoaren eta landarearen kontzeptuak.

Lana eta gogoetak bideratuta EKARPEN BERRI bat egin zen, adierazpen pertsonala eta/edo kolektiboa **sorkuntza bakarrean** islatzeko. Hausnarketa plastikoaren EMAITZAK, ERANTZUNAK, KONTAKIZUN forma du (mikrokontakizun kolektiboa):

- Hautemandako premiei buruzko sentsibilizazio ekintza **sortzaileak**.
- Formatu artistikoko ekintza **eraldatzaileak**: produktu kultural berri bat, ezagutza estetikoa eta errealitatearen eraikuntza uztartzen dituen eta errealitatea eraldatzen duena.

11. Eranskinak eta estekak

Algortako Nagusien Elkartearen (AJANE) webgunea:

<https://ajane.eu/>

Algortako Nagusien Elkartearen ikastaroak:

https://ajane.eu/?page_id=98578